

Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE

Eñaut
d'Elizagarai
pastoralaJunes Casenave-
Harigile

GAMERE-ZIHIGA

150 orrialde / 7 euro

Gamere-Zihigako
aurtengo pastorala

XVI. mende erdian Zuberoako Armendaritzen sortu zen Eñaut d'Elizagaraien bizitza eta ekintzetan oinarritu da Junes Casenave pastoral hau egiteko. Gamere eta Zihiga herrietan antzetzuko dute obra. Frantziako itsasontziak modernizatzen egindako ahaleginarengatik gogoratzen da Eñaut d'Elizagarai bereziki, baina ez gutxiago ontzi-kapitain zein kortsario gisa Luis XIV.aren itsas-armada frantziarrean erakutsi zuen ausardiarengatik. Ingeniaria zen eta ontziak eraikitzeaz gain, gotorleku eta zubi asko altxa zituen. Bazuen bestelako jakituririk ere: Renaud d'Elissagarayk liburuaren hitzurrean gogoratzen digunez, filosofoa ere bazen, baita matematikaria ere. Hain zuzen, alor horretan egindakoengatik Frantziako Zientzien Akademiako kide izendatu zuten. ■

tzen digunez, filosofoa ere bazen, baita matematikaria ere. Hain zuzen, alor horretan egindakoengatik Frantziako Zientzien Akademiako kide izendatu zuten. ■

Fisika jostagarri
Eduardo de Campos
Valadares

ELHUYAR

284 orrialde


18 euro

Erraz egin daitezkeen fisika
saiakuntza liluragarriak

Eduardo de Campos Valadares Fisika doktoreak, egun, Minas Geraiseko Unibertsitate Federaleko Fisika sailean egiten du lan, eta hainbat lan argitaratu ditu bertan. Horien artean *Fisica mais que divertida* dago, Igor Urresti Osari esker egun euskaraz irakur dezakeguna. Itzulpen asko ezagutu ditu lan honek, alemanez eta ingelesez, besteak beste. Newtonen ideiak azpimarratzen dituzten zenbait esperimentu erraz agertzen ditu. Irakurlero zabalari eskainia dagoen arren, *Fisika jostagarri* liburuan proposatutako proiekturik gehienak oinarritzko hezkuntzako eskoletan dabilzanentzat –hamar-hamalau urte dituztenentzat– egokiak dira, nahiz eta, kasu batzuetan, ume horien lana gainbegiratu duen helduren baten zaintza beharko luketen. ■

Bizia itsasargian
pasa zuen andrea

Gazteei zuzendutako liburuxka onetan itsasargi baten barruan bizi den amona baten gaineko kontakizuna agertzen da. Oso gaztea zen itsasargian bizitzearekin amets egiten hasi zenean. Noizbait lortu zuen helburua, herriko plazan dantza egiteko eskatu zion gustuko gazte baten bitartez. Ondoren etorri zen bien semea, eta hura heldu ondoren, baita biloba ere. Ume hori, amonaren kontu gelditu zen, semeak eta neska-lagunak nahiago zutelako itsasargian gelditu beharrean, olatuz beteriko mundura atera. Amona gelditu zen haien fruituarekin, bada, eta hark hazi eta hezi zuen mutikoa. Biraka zebilen ordulariak aurrera egin zuen, umetxoa hazten joan zen, eta amona zahartzen, gaztaroko kontuak gogoratzen zituen bitartean. ■



Itsasargia

Koos Meinderts &
Annette Fienieg

TTTARTALO

36 orrialde

12,95 euro

Telebista ikustea
baino hobea

Zortziren bat urte dituzten neska-mutikoei begira egindako *Furia* kontakizuna Patxi Zubizarretaren testuak eta Elena Odriozolaren irudiek osatzen dute. Protagonista, telebista txoratzeraingo gustuko duen mutiko bat da. Aita jockey-a du eta Grand National lehiaketan parte hartzekoa da. Bitartean, ama oso arduratuta dago semearen azkenaldiko zaletasun itsuarekin hau da, telebista momentuoro ikusteko duen grinarekin. Halako batean, aita etxera itzuliko da, eta nork daki zergatik, argia joango zaie. Ondorioz, besteak beste, telebista ikusterik ez dago. Mutikoa lur jota geratuko da. Baina orduan aita gerturatuko zaio, bera, ama eta hirurok zaldian ibiltzera joateko proposatuz. Eta zalditegira doazen bitartean, berarentzat ezusteko polit bat duela esango dio. ■



Furia

Patxi
Zubizarreta,
Elena Odriozola

EREIN

60 orrialde

6,60 euro



Haize hegoaren aroak

Luis Garde

PAMIELA

110 orrialde

13,50 euro

Luis Gardek gure gerrei eskainitako poemak

Euskaldunak ez garela herri baketsu idilikoa, gerran ibili garela beti, baina gure gerrak zibilak izan direla adierazi du Luis Gardek *Haize hegoaren aroa* bigarren poema liburuan. Oroimen historikoa hartu du oinarritzat poetak liburuko olerkietan, uste duelako aspalditik hona egin edota jasan behar izan ditugun gerra zibilak ulertzeko tresna izan daitezkeela. Gernikako bonbardaketari eta Axularri egindako aipamenak aurkituko ditu poemotan irakurleak, eta Lauaxetaren hitzak atalen izenburuetan. Oroimen historiko belikoa erabili du Gardek, eta horrela aldarrikatzen du: *Geure gerren*

poemak dira, Karlstadtanak, 36koa, egungo gatazka, etorkizunekoak.... baina beti geureak. ■

Noiz eta nola dagokigun hika hitz egitea

Gontzal Fontanedak hika hitz egiten ikasteko plazaratu duen metodoan, besteak beste, honakoak azaldu ditu: hitanoa noiz erabili, zertan datzan, zuka mintzatzetik hika mintzatzetako bidea, hitanoa osatzeko urratsak, adizki alokutiboen eraketa, erro-aldaketa, hiketa osatua noiz ez erabili, hiru jokaerak eta izan aditza. www.fontaneda.net web gunean eta hikasi@fontaneda.net helbide elektronikoaren bidez jar daiteke interesa duena egilearekin kontaktuan, metodoari buruzko iradokizunak eta kritikak igortzeko. ■

Hikasi

Gontzal Fontaneda

LULU

148 orrialde



PABLO SASTRE

«Irabaziari begira eginik ez dagoen zenbat tresna dugu?»

Zerk bultzatu zaitu *Gauzen presentzia* osatzera?

Beren baitan bizia daramaten gauzek –haurrek pintatutako paperak, txilar-belarrez eginiko eskobak– beren ederrez samurtu egiten naute; aldiz, izerdirik gabeko gauzek, beren indiferentzian asaldatu, aztoratu egiten naute. Aztoramendu hori dago saio honen oinarrian. Hortik heldu da galde-soka luzea. Nolatan heldu gara garen bezalakoak izatera? Nolatan ditugun gauzak izatera? Antzina, zelan eramaten ziren gauzak? Zein klasetako jendea hasi zen batzuk eta besteak erabiltzen? Jendeak aurre egin al zion? Irabaziari begira eginik ez dagoen zenbat tresna dugu? Zein gauza dira, hauetatik, seguru asko gustu handiz ari ez diren jendeen lan esklaboaren fruitua? **Galdera horien bidez, zehazki zer jakin nahi duzu?**

Gauzak zergatik erabiltzen ditugun, edo zergatik ez ditugun erabiltzen, hori da jakin nahi dudana.

Eta erantzunak, nondik atera dituzu?

Jakituria iturrietatik bat, gure aitatxi-amatxiengandik hartzen ahal duguna, itxia edo biziki agortua dagoela sumatzen dut, eta horrek izugarri kolpatzen nau, zergatik da hori horrela? Orduan, nire eskura diren beste iturrietara jo izan dut: noski, ezagutze sentsiblea, batik bat inguratzen nauten jendeek eta gauzek eman didate; eta, bestetik, liburuetakoa jakintzaz baliatu naiz.

Kritika zorrotza egiten diozu “makinismoari”?

Ez dut uste progresoak gizateriaren ongizatea ekarriko duenik. Lehia, “ukan dezagun gutxiago, ukan dezagun orok” terminoetan ez baldin bada planteatzen, ez da nire lehia.



egileari galdezka

Industriak gizadiari eragiten dion suntsipenaz

Pablo Sastrek garbi dauka: emakume eta gizonak gai dira behar dituzten gauzak sortzeko –ahalmen horren lekukotasunak utzi dituzte historiaurretik hasita–, eta gai beharko lukete izan esateko, eurek, aurrerabidearen izenean industriak sortutako ezin konta tramankuluetatik zein gauza nahi duten –beharrezkoa zaien–, eta zein ez. Hori ordea, ez da inondik ere gertatzen, *Gauzen presentzia* saioan zalantzari tarte gutxi utziz azaltzen den bezala.

Industria ondorengo munduari erreparatzen dio egileak, zibilizazio horren kritika zorrotza egiteko, galdera ugariren bidez. Hona hemen funtsezkoenetakoa: industriak sortutako makinetatik zenbat dira beharrezko, eta zenbat aurretik genituen “gauzak” baino okerrago eta, beraz, haiek izateari uko egin beharko geniekeenak? Industria ondoko



Gauzen presentzia
Pablo Sastre

ELKAR

320 orrialde

23,50 euro

etxeek zerikusi gutxi dute aurreko etxebizitzekin. Noiz sortu ziren koilarsardexkak? Nolakoak ziren aurreneko oheak eta komunak, eta zergatik aldatu zen haien erabile-ra? Noiz ekin zion Mendebaleko emakumeak kuleroak eta bularretakak janzteari eta gizonak kantzontziloak eramateari? Gasa, argindarra, tren, telefonoa, kotxea, ordenagailuak... nahitatezkoak ote ditugu? ■